



Kataluniako Herriak bizi duen egoeraren aurrean, EhBildu eta EAJ taldeek aurkeztutako mozioa

**“KATALUNIAREKIN BAT, DEMOKRAZIAREKIN BAT.
MOZIOA**

Urte luzeetako prozesu baten baitan eta herritarren gehiengo baten eskarjari atea irekiz, etorkizuna libreki erabakitzeko bitarteko demokratikoz hornitu du Kataluniako herriak bere bidea. Kataluniako instituzio nagusiek herritarren nahiei bide emateko erabaki irmoa hartu dute.

Katalunian herritarren borondatearen eskutik eman diren urratsek, Madrilen aldetik indarraren, mespretxuaren eta zaharkitutako legeen ustezko arrazoiarekin erantzun da.

Bide demokratikoen aurkako eraso larri honen aurrean, Oñatiko Udalak honako mozio hau eztabaidatu eta onartzen du:

- 1.- Udal honek, zilegitasun osoa aitortzen dio Kataluniako Parlamentuak egingo duen autodeterminazio erreferendumari. Izan ere, libreki adierazitako herritarren borondatea da tresna politikorik eraginkorrena edozein herri edo kolektiboren etorkizuna eraikitzeko.
- 2.- Udal honek, Kataluniar herriaren eta Parlament-aren erabaki burujabeen aurka Espainiar estatutik buruturiko erasoak salatu eta arbuizaten ditu. Madrilgo Gobernuak, epaitegiak eta Auzitegi Konstituzionala ezin direlako Kataluniako herritarren gehiengo zabalak adierazitako borondate demokratikoaren gainetik jarri.
- 3.-Modu demokratikoan aukeratuak izan diren Kataluniako alkateak deklaratzera deitzea irmoki salatzen dugu. Demokrazia praktikan jartzea ahalbidetu nahi duten alkateak inputatzea deitoratzen dugu.
- 4.- Udal honek, Euskal Herria, Katalunia edo munduko gainerako herrietan, herritarren borondate askean oinarrituta garatzen dituzten prozesu politikoen alde egiteko konpromisoa hartzen du.
- 5.- Udal honek Kataluniako herriak urriaren batean oztopo guztien gainetik egin asmo duen ariketa demokratikoa errespetatzen du eta Instituzio zein eragileei ere berdina egitea eskatzen die. Horretarako erabaki honen berri, Kataluniako Parlament-eko lehendakariari, Madrilgo Gobernuko presidenteari eta Auzitegi Konstituzionaleko presidenteari ematea erabakitzen du. Gure udalerriko herritarrei ere jakinaraziko zaie erabaki honen berri.
- 6.- Espainiar estatuak Katalunian ezarri duen salbuespen egoera kontuan izanik, Kataluniako instituzio eta herritarrei elkartasun keinu gisa, urriaren bateko galdeketa bitarte Udaleko balkoian estelada jartzea onartzen du Udalbatzak.”

OÑATIN, 2017ko irailaren 20an